



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2016/04/26

## **Otadui Gernikako bonbardaketaren biktimen aldeko omenaldian egon da gaur**

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidenteak, Gernikako bonbardaketaren biktimen omenaldi ekitaldietan hartu dau parte gaur arratsaldean, 79 urte beteten diran egunean. Ekitaldian, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidenteak, Unai Rementeria Bizkaiko Ahalduen Nagusiak, Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako bozeramalea eta José María Gorroño Gernikako alkateak be hartu dabe parte. Daborduko ohikoa dan lore eskaintzea egin da, "Agur jaunak" entzun da eta aureskua dantzatu da 1937ko apirilaren 26ko bonbardaketetan hildakoen ohorez.

Bertan egon diranen artean, Euskadin bisitan dagoan Janusz Chwierut Poloniako Oswiecin (Auschwitz) uriko alkatea be azpimarratu behar da. Joan dan zapatuan Gernikako Batzarretxean egon zan, Gernikagaz alkartasunezko loturea estutzeko. Chwierutek eta Otaduik azpimarratu ebenez, datorren urtean Gernikako Arbolaren kimu bat landatuko da Auschwitzeko agintariak nazien kontzentrazino eta sarraski eremuaren ondoan eregiko daben Herrien Adiskidetzerako Parkean. Parke horren "lehenengo harria" izatea gura da, adierazo eban Otaduik.

Zaloko hilerriko ekitaldia, bonbardaketa izan zan orduan Gernikako eleizetako kanpaiek jo ostean egin da. Lau minutuz, herriko biztanleek isilunea gorde dabe biktimen oroimenez. Gauean, herritarrek biktimak omentzen jarraituko dabe, herriko kaleetan kandelakaz egingo dan prozesinoan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
26/04/2016

## **Homenaje a las víctimas del bombardeo de Gernika**

La presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, ha participado esta tarde en los actos de homenaje a las víctimas del bombardeo de Gernika, del que hoy se cumplen 79 años. En el acto, al que han acudido también la presidenta del Parlamento Vasco, Bakartxo Tejeria, el Diputado General de Bizkaia, Unai Rementeria, el portavoz del Gobierno vasco, Josu Erkoreka y el Alcalde de Gernika, José María Gorroño, se ha realizado la tradicional ofrenda floral y se ha escuchado el "Agur jaunak", así como bailado un auresku en honor a los fallecidos en los bombardeos del 26 de abril de 1937.

Entre los asistentes, ha destacado también la presencia del alcalde de la ciudad polaca de Oswiecim (Auschwitz), Janusz Chwierut, que se encuentra de visita en Euskadi. El pasado sábado se trasladó a la Casa de Juntas de Gernika para estrechar lazos de solidaridad con la villa foral. Chwierut y Otadui anunciaron que el próximo año un retoño del Árbol de Gernika se plantará en el Parque de la Reconciliación de los Pueblos que las autoridades polacas construirán junto al campo de concentración y exterminio nazi. Pretende servir de "primera piedra", señaló Otadui.

El acto en el cementerio de Zallo ha tenido lugar después de que repicaran las campanas de las iglesias de Gernika a la hora en que tuvo lugar el bombardeo. Durante cuatro minutos, los habitantes de la villa han guardado silencio en recuerdo de las víctimas, a las que se ha seguido honrando por la noche con una procesión con velas por las calles de la localidad.